



Astirtitan
Petti
Bonberenea Ekintzak, 2014

Pettiren bost kantu eder

AZALEKO IRUDIAK adierazten duen bezala, lan iradokitzailea da *Astirtitan*. Melodia politak, hunkigarriak eta mingotsak, giro lasaiak, eta rock erritmoak entzun daitezke. Nahiko lan gordina da, gehiegizko apaindurarik gabe ekoitzia. Kantuak ederrak dira, “nahiko biluziak” Pettiren esanetan.

Grabazio saioetan, Pettirekin hainbat musikari handi aritu dira: Karlos Aranzegi (perkusoak), Iñigo Telletxea (baxua), Igor Telletxea (bateria), Joxan Goikoetxea (kordiona), Estixu Pinatxo (ahotsak) eta Freddi Pelaez (Hammond b3).

Kantu guztien musika Pettik konposatu du. Pettik berak Egunero eta Argiak kantuen hitzak idatzi ditu, Harkaitz Canok Suerteren Bluesa eta Erramurik gabeko gauak kantuenak, eta Bernardo Goietxek Hil arte edan kantuarena.

Bost kantuak Iñaki Bengoaren eskutik Shot estudioan eta Jonan Ordorikaren eskutik Katarain estudioan grabatuak izan dira. Masterizazioa Karlos Osinaga *Txapek* egin du, Bonberenea estudioan. Miren Karmele Gomezek diskoaren azala egin du, J.A. Areta Goñi *Juxek* argazkia eta Imanol Urizarrek diseinua eta maketazioa. Denen artean lan handia egin dute eta bikain osatu dute *Astirtitan* lana.

Petti (Bera, Nafarroa, 1973) musikari eta musikagile handia da, aparta. *Astirtitan* lanaren aurretik, beste bost bakarkako disko kaleratu ditu, Gaztelupeko Hotsak eta Bonberenea Ekintzak zigiluekin –*Ametz bat* (1999), *Arrazioak* (2001), *Etxeke Uzta* (2002), *On* (2007) eta *Añañak* (2008)–, eta Anari, Txuma Murugarren, Rafa Rueda, Xabi Señor No edota Barence Whitfield-ekin grabatutako diskoak ere kaleratu ditu.

Blues, rock eta folk iturrietatik edaten du, aire horiek bere kantuetan sumatzen ahal dira, baina bere-berea duen doinu bat sortu du, urtez urte, kantuz kantu, emanaldiz emanaldi eta diskoz disko osatu duen doinua. Doinu hori berehala ezagutzen dugu bere kantu bat entzuterakoan, musikari handia izateaz gain Pettik abesteko, gitarra jotzeko, eta kantuak sortzeko eta interpretatzeko modu berezi bat baitauka, paregabea.

Pettiren bihotza handia da, kantuen bidez bere ezinegona, kezkak eta sentipenak indar eta kemen



handiz transmititzen ditu, eta berehala hunkitzen gaitu. Bere ahots urratu eta sakona erraietatik ateratzen du, bluesaren arimaz kutsatuta.

Jadanik zazpi urte pasatu dira Pettik bakarkako aurreko lana kaleratu zuenetik, eta bere disko berri bat entzuteko irrikan ginen aspalditik. Baina denbora horretan Petti ez da geldirik egon, *Oroitzapenerako kantak III* (2013), *Beltza. Bye, bai, Cash* (Gaztelupeko Hotsak, 2011), *Imanol Urbieta, bakarrik eta libre* (Elkar, 2013) eta *Lou Reed, mila esker* (2014) bildumetan parte hartu baitu. Gainera, jendaurreko emanaldiak egiten aritu da, bakarka, taldearekin edo beste musikari batzuekin: Balerdi Balerdi taldearekin, *Gau-beranduan* emanaldian Harkaitz Canorekin eta Joxan Goikotxearekin, eta Sortuko dira besteak kantaldian ere bai, esaterako.

Astirtitan “trantsizioko disko bat” izan daitekeela onartu du musikariak berak, baina udazkenerako lan luze bat kaleratzeko asmoa dauka, “disko rockeroagoa izango da, indartsua, gordina”, bere hitzetan. Disko berri hori entzuteko gogoz gaude, zain. ■

Joxi Ubeda